



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 25
Urtea/Año 2014
Urria/Octubre

BIGARREN ORDAINKETA 2014-15 IKASTURTEA

Ikasturte honetako bigarren ordainagiria urriko bigarren hamabostaldiaren hasieran igorriko dizuegu. Uztailan jakinarazi genizuen bezala, igorriko zaizuen zenbatekoa matrikulaturik zaudeteneko irakasgaien hileko kuotari dagokio (urteko tasen zenbatekoaren bederatzirena). Uztailan matrikula igorri ez zaizueni edo Eskolan irailan sartu zaretenei, tasen kuotarekin batera matrikulari dagozkion 96 €ak igorriko zaizkizue.

AURKEZPEN-GIDA 2014-15

Ikasturtearen hasierarekin, aurkezpen-gida eman dizuegu. Bertan, gure antolakuntza eta jardueren buruzko informazio interesgarria aurkituko duzue. Formatua aldatu diogu, erabilgarriagoa izan dezazuen. Zuentzat interes handien duten gaiak azaldu. Web orrian ere duzue eskuragarri.

BEÑAT MARDARASEN ALDEKO ONGINTZAZKO KONTZERTUA

Beñat Mardaras bihotzeko gaixotasun larria duen ume algortarra da. Zenbait ebakuntza egin behar dizkiote atzerrian eta hauen ordainketan lagundu nahi duzue, ongintzazko kontzertu baten bidez. Algortako Salbatzailearen elizan egingo duzue, datorren urriaren ostiral 10ean, 20:00etan. Kontzertua, "Andrés Isasi" Musika-bandak eta Biotz Alai Abesbatzak eskainiko dute. Sarrerek 3 €ko salneurria dute eta Musika Eskolan, Kultur Etxean eta, kontzertua baino lehen, elizan bertan izango dira salgai. O Lerroko sarrerek ere izango ditugu, salneurri berean. Animatu, etorri eta lagundu.

ONGI ETORRIA

2014-15 ikasturtea hacia dugu dagoeneko. Irailaren 8an hasi genuen. Ikasturte berria. Zuetako askok ezagutzen duzue Zentroa dagoeneko. Beste batzuk berriak zarete gurekin. Guztioi gure ongi etorririk beroena.

Denok ezagutzen duzuen sendotzeaz gain, aurten haur-abetesbatzak hasiko du bere ibilera. Oso esperientzia musikal ona izango da. Gozatuko duzuela eta Getxoko Haur Abesbatza zer izatea nahi duguna finkatzen hastea espero duzue.

Ikasturte honetako beste nobedade bat, Liburutegian aldizka emango ditugun hitzaldi musikalak izango dira. Mundu guztiarentzat dira egokiak. Urriaren hiruan hasiko dira. Bere garaian emango dizuegu haien berri. Honen eta Musika Eskolaren munduaren zati on baten berri emateko, Musika Eskola Digitala, MED, aldizkari hau duzue; hilabetero eskuragarri duzue web orrian. Jarrai ezazu eta eman zure iritzia, hobetu ahal izateko.

HITZALDI MUSIKALAK LIBURUTEGIAN

Ikasturte honetan, Eskolako Liburutegiak musikarekin zerikusia duten dibulgaziozko hitzaldi-zikloa izango du: historia, organologia, lutheria eta gure kultura musikal aberasten lagunduko duten makina bat gai desberdin izango dira.

Lehenengo hitzaldiak urrian hasiko dira. "Musika-tresnak artean" izenburu generikopean bildutako lau mintzaldiko zikloak osatuko ditu. Josetxo Bretos algortarrak emango ditu. Fisika-zientzietan Dokorea da Euskal Herriko Unibertsitatetik eta Musika-akustika eta Organologia irakaslea Musikenen. Hizlariak, modu errazean, musika-tresnak margolaritzan, eskulturan eta arte aplikatuetan irudikatu diren modu desberdinak erreparatuko ditu.

Tokia erreserbatzea beharrezkoa da, edukiera mugatua da eta. Sarrera doakoa da.

MUSIKA-TRESNEN HASTAPENAK 2014-2015

Urriaren bigarren astean hasiko dugu Musika-tresnen Hastapenetako Jarduera. 1. Mailako 3. Moduluko eta 2. Mailako 0 Moduluko ikasleentzat da eta, horren bidez, eskolan irakasten ditugun tresna gehienak hurbildu nahi dizkiegu, musika-tresna hautatzeko garaian aniztasuna handitzeko asmoz. Egia esan, bi jarduera desberdin dira: taldeka egingo diren eta astero tresna desberdin bat ezagutuko duten 14 saio instrumental; eta 7 kontzertu didaktiko, familia instrumental desberdinak aurkezteko eta bereziki inautentzat diseinaturiko kontzertu eraikargarrietara joateko aukera izan dezaten. Tutoreen bidez helaraziko zaizue fitxa pertsonalizatua aurtengo saioen datekin. Añalegina egitera animatzen zaituztegu, kontzertuetara etortzeko batez ere.

EKITALDIAK

Joan den irailaren 21ean, igandea, Mesedeetako jaien eta Mugikortasunaren Astearen barruan, gure Eskolako txistulari-talde batek Aretako kaleak animatu zituen. Zorionak guztiei beraien emanaldiagatik.

Hileko egutegia

Urria

a	a	a	o	o	l	i
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

■ Jai-egunak

■ Eskolako jarduerak

■ Jarduerak jai-egunetan

Agenda Urria

Ostiral 3, 17, 31: "Musika-tresnak artean" hitzaldi-zikloa. Eskolako Liburutegian. 19:00etan. Sarrera doan, erreserbapean.

Ostiral 10: Algortako Salbatzailearen elizan. 20:00etan. Beñat Mardaras aldeko ongintzazko kontzertua. Sarrera: 3€. Musika Eskolan, Kultur Etxean eta, kontzertua baino lehen, elizan bertan salgai.

Larunbat 18: Atxuriko Gizakundearen elizan, Bilbon, 20:15ean, "Andrés Isasi" Akordeoi-taldeak eta Eskolako perkusio-ikasleek, Beti Jai Alai dantza taldea, Ugao Abesbatza eta Jatorki Abesbatzarekin batera, diziplina anitzeko ikuskizuna eskainiko digute (musika instrumentala, korala eta dantza), Jatorki Abesbatzak urtero antolatzen duen Agiña Memorialean.

Kontzertu hauetarako sarrera doakoa izango da.